

# EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2022

## IZEN-EMATEAREN OINARRIAK

### ZER DA?

*EuskarAbentura Espedizioa 2022*, proiektu honen laugarren edizioa izango da. Ekimena 130 gaztek osatutako espedizioa da 2022ko uztailearen 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko du.

**OHAR GARRANTZITSUA:** EuskarAbentura Elkarteak bere eskuartean dagoen gutzia egingo du 2022ko udan EuskarAbentura Espedizioa antolatzeko. Aldiz, bizi dugun egoeran, ezin dugu %100ean ziurtatu ibilbide originala jarraituko duen 130 gaztez osatutako hilabete osoko espedizioa antolatu ahalko dugunik. Horregatik, gogorazten dizuegu ekintza momentuko egoeraren arabera antolatuko dela, betiere indarrean dauden prebentzio neurriak errespetatuz. Hori dela eta, kontuan izan egitasmoan aldaketak egon litezkeela: parte-hartzaile kopuruan, iraupenean, ibilbidean... Data hurbildu ahala hartzen ditugun erabakien berri emango dizuegu.

### BALDINTZAK

EuskarAbentura Espedizioa 2022 ekintzan parte hartzeko hurrengo baldintzak bete behar dira:

- 2005 edo 2006 urteetan jaioa/sortua izan
- Euskaraz jakin

Gure helburua mundu mailako gazte euskaldunen sare bat osatzea da, beraz 7 euskal lurraldeetatik datozen gazteez aparte, horietatik kanpoko parte-hartzaileak ere bilatzen ditugu!

### HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO

Hautagaitza aurkezteko [www.euskarabentura.eus](http://www.euskarabentura.eus) webgunean aurkituko duzuen formularioan gaztearen eta tutore/gurasoen datuak bete eta bi dokumentu bidali beharko dira:

#### 1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik espero duzuna, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

#### 2. PROIEKTU BAT (*Kontuz!* Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da)

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu:

## PROIEKTUA EGITEKO GAIAK (2022)



### GURE AISIAREN ESPAZIOA

Zementuz eginak, gunee berde gutxiarekin, hesi batez inguratuta, futbol zelai bat edota saskibaloiz zelai bat espazio guztia hartzen... Pentsatu al dugu noizbait nolakoak diren eta zer gertatzen den gure hezkuntza zentroetako jolastokietan? Nork hartzen du jolastokien espazio handiena? Zer eta nor dago bazterretan? Baloiak gustatzen ez zaizkion horrek zein alternatiba ditu? Zein da zure ametsetako jolastokia?



### FAST FASHION

Etengabe aldatzen ari den modak, iragarkiek, erakusleihu ikusgarriek... gustuko ditugun jantziak erostera bultzatzen gaituzte. Arroparen prezioa merkatu egin da eta gero eta gehiago erosten dugu. Behar baino gehiago, agian? Zenbat balio du arropak eta zein da bere kostu erreala? Zein eragin du gure arropa kontsumoak gure inguruan? Nire armairuan dauden galtza pareak munduko zein tokitatik dator? Zein izan da ekoizpenak ingurumenean eragindako kaltea?



### ZER GINEN, ZER GARA, ZER IZANGO GARA

Gaur egun ere aldaketa ugari momentu batean gaudela esan daiteke, baina begirada gure ingurura botatzen baldin badugu, gure aitona amaren bizimoduak norengandik daude hurbilago? Gugandik ala duela 500 urteko euskaldunekin? Nolakoak zen gure aitona amonen gaztaroa eta nolakoak da gurea? Nolakoak zen beraien aisialdia, sinesmenak, familia eta lagun harremanak, egunerokotasuna, beldurrak, ardurak, auzo kidetasuna ... eta nolakoak dira gureak? Zer gauza berreskuratuko zenituzke eta zeintzuk birpentsatu? Nolakoak da gaur egun eraikitzen ari garen mundua eta nolako mundua izango da zu aitona amona zaren garaian, hemendik 50 urtetara?

### PROIEKTUAK GARATZEKO IDEIA BATZUK:







\*Hauek gure proposatutako ideiak baino ez dira. Zuk gaiari nahi diozun moduan heldu ahal diozu!

- Zementua VS Inguru naturala
- Baloirik gabeko ostiralak
- Hesi gabeko aisialdi espazioak

- Zein da eta nork ordaintzen du moda azkarraren benetako kostua?
- Modu jasangarriak janzteko moduak.
- Internet bidez ala herriko dendan erosi: zein da nire aukera?

- Galdutako ohiturak berreskuratzen.
- 2072 Euskal Herrian
- Ixiltasuna: lehen, orain eta gero. Zaindu beharreko altxor bat?

## PROIEKTUEN FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK

 HISTORIKOA	 LITERARIOA	 IKUS-ENTZUNEZKOA	 MUSIKALA	 PLASTIKOA	 SORMEN DIGITALA
<b>1.TESTUA</b>	<b>1.TESTUA</b>	<b>1.BIDEOA</b>	<b>1.AUDIOA</b>	<b>1.ARTELANA</b>	<b>1. GARATUTAKO PROIEKTUA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 3-5 orrialde (portada aparte)</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- Anexorik ez</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: (portada aparte) Olerkia: 3 orrialde Prosa: 3-5 orrialde</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea: 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupena: 2-5 minutu</li> <li>- Generoa: dokumentala/fikzioa</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: Youtubera modu pribatuan igo eta esteka bidali</li> <li>- Artxiboaren izena: abizena+izena+obra</li> <li>- <b>EZ DADILA EGILEAREN IZENA AGERTU</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraupena: 2-8 min</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: Youtubera modu pribatuan igo eta esteka bidali</li> <li>- Artxiboaren izena: abizena+izena+obra</li> <li><i>* Abesti ezagunen bertsiok onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gehienezko tamaina: 50x70x20</li> <li>- Materiala/teknika: Askea</li> <li>- <b>EGILEAREN IZENA EZ DADILA AGERTU</b></li> </ul> <div style="background-color: #fce4ec; padding: 5px; margin: 5px 0;"> <p><b>GOGORATU!</b>  <b>Martxoaren 9a</b> baino lehen artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da, postaz ala pertsonalki ekarritz:</p> </div> <p style="text-align: center;"><b>EuskarAbentura Elkartea</b>  Martikoena Kalea, 16, 2.solairua -  azkeneko bulegoa  48992 – Algorta</p> <p><b>Ordutegia:</b> asteleheneretik ostiralera  09:00-14:00 / 15:00-18:00</p>	<p>2 aukera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kodea ZIP formatuan, garatutako proiektua osatzen duten fitxategiekin. Fitxategiaren izena: abizena+izena+proiektuaren izena.zip</li> <li>• Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali.</li> </ul>
<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>	<b>3.AZALPEN TESTUA</b>	<b>2.AZALPEN TESTUA</b>
		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde (portada aparte)</li> <li>- Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak...</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea: 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde</li> <li>- Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde</li> <li>- Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul> <div style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;"><b>3.OBRAREN ARGAZKIA</b></div> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Formatua: JPEG/PDF/PNG</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Luzeera: 2-3 orrialde (portada aparte)</li> <li>- Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena.</li> <li>- Hizkuntza: Euskara</li> <li>- Formatua: PDF</li> <li>- Letrakera : Times New Roman 12</li> <li>- Lerroartea : 1,5</li> <li>- <b>EZ IDATZI EGILEAREN IZENA DOKUMENTUAREN ORRIALDEETAN</b></li> </ul>

**ADI! KASU!** Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte-hartzaileen hautaketan kontuan hartuko.

## 2022 EGUTEGIA

**Martxoaren 4ra arte (barne)** Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali

**Apirilak 22** Behin-behineko hautatuen zerrenda argitaratuko da webgunean

**Apirilak 22 – Apirilak 29** Behin-behineko hautatuek eskatuko zaien **DOKUMENTAZIOA** eta **BERMEAREN ZIURTAGIRIA** bidali beharko dituzte [izenemate@euskarabentura.eus](mailto:izenemate@euskarabentura.eus) helbidera.

(Info+ Izen-ematea burutzean email batean jasoko duzue)

Espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plazari uko egingo balio edota plaza gordetzeko derrigorrezkoa den bermea ordainduko ez balu bere plaza itxaron zerrendan geratu diren gazteei eskainiko zaie, hurrenkeran. Kasu horietan:

**Maiatzak 2 – Maiatzak 6** Itxaron zerrendan zeuden eta plaza eskaini zaien gazteek eskatuko zaien **DOKUMENTAZIOA** eta **BERMEAREN ZIURTAGIRIA** bidali beharko dituzte [izenemate@euskarabentura.eus](mailto:izenemate@euskarabentura.eus) helbidera.

(Info+ Izen-ematea burutzean email batean jasoko duzue)